

# Etxe domotikoak amaitzeaz

Eusko Jaurlaritzak Intxaurren egiten ari den babes ofizialeko etxebizitza domotikoen lanek aurrera darrailte. Hilabete gutxi barru inauguratuko da adituen arabera EAEn diseinaturiko eraikin modernoena izango dena.

Ainhoa Irazu

Zer du, baina, etxebizitza multzo honek besteek ez dutenik?


Batetik, eraikitze lanetan teknika berrienak eta materiale aurreratuenak erabili dira. Bestetik, etxebizitzoi sistema domotikoak ezarri zaizkie erosotasuna eta segurtate areagotzeko. Baita energia aurrezteko ere.

Intxaurrendokoa EAeko babes ofizialeko etxebizitza domotikoen lehen sustapena da.

Etxebizitza berriak Hego Intxaurren daude. Guztira 96 etxebizitza dira, 70 eta 89 metro karratu bitartekoak. Sustapena Visesa elkarte publikoaren esku dago.

## Energia aurrezteko

Formari dagokionez, eraikin berriak ezohiko egitura du. Etxebizitzek ohi baino zutabe gutxiago dituzte, eta beraz, etxebarruko banaketa malguagoa da. Barruko instalazioak egiteko teknologia aurrera-



Guztira 96 etxebizitza domotiko eraikitzen ari dira Intxaurren, horietatik hiru elbarrituentzat.

tuena erabili da, esaterako, galdara zentralari esker, nork bere etxean energia kontsumoa kontrolatzeko aukera izango du. "Ondorioz, jabeek gas kontsumoaren %40 aurreztuko dute", jakinarazi digu Kike Sarasa Visesako prentsa buruak.

Bestalde, arkitektura diseinua berezia da, eta barrualdean dagoen berdeguneari esker, eraikinak aireztatze egokia izango du, ez gehiago ezta gutxiago ere. Komunetan eta sukaldeetan ezarritako aspiragailuek kontralatu dute aireztatze sistema.

## Morroi elektronikoa

Hala ere, Kike Sarasak adierazi bezela, etxebizitzon dohain nagusia domotika instalazioa da.

"Erosotasuna eta energia aurrezteaz izan dira gure erronka nagusiak. Ildo horretatik, datozen urteetan European Indarrean jarriko diren eraikuntza araudi berrien aurretik goaz", diosku Sarasak.

Sistema domotikoaren instalazioa Fagorren esku egon da. Etxebizitza bakoitzeko telefono azpian "Maior-Domo" izeneko kontrolatzailea ipini da. Beraz, nahikoa da "Maior-Domo"-ari telefonoz agindu bat eman, morroi elektronikoa garbigailua martxan jartzeko. Etxeko beste hainbat tresna ere, etxetik kanpo egonik ere, kontrolatu ahal izango dira.



## Etxebizitzaren belaunaldi berria

Ez dira horiek, ordea, domotika sistemaren zerbitzu bakarrak. Jabeek telefono sare digitalaz eta kable bidezko telebistaz gozatu ahal izango dute. Hori gutxi balitz, alarmak ur edo gas galeren berri emanez gero, "Maior-Domoak" jabeari hots egin eta ur eta gas hartuneak itxiko ditu automatikoki. Lapurrak ere kontrolatu ahal izango dira modu horretan. Heldu da etorkizuneko etxebizitzaren belaunaldi berria.

## Kale kantoitik

### Hamabi eta hamalau milioi bitartean

Etxebizitza bakoitza 12 eta 14 milioi pezeta bitartean saldu da eta proiektuak guztira 1.006 milioi pezetako aurrekontua du. 96 etxebizitzetatik 3 elbarrituentzat egokitu dira.



**Kike Sarasa:**  
«Eraikuntza araudi berrien aurretik goaz»